# ERREGELAMENDU OROKORRAREN 35.5 ARTIKULUAK AGINTZEN DUEN DATU BABESAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EGIN BEHAR EZ DUTEN TRATAMENDU MOTEN GAINEKO GUTXI GORABEHERAKO ZERRENDA.

## SARRERA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (aurrerantzean *"Erregelamendu Orokorra"*) Datu-babesaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa (aurrerantzean *"Eraginaren Ebaluazioa"*) arautzen du *"Tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea"* izenburua duen IV. Kapituluaren 3. atalean.

Erregelamendu Orokorrak xedatzen du kontrol-agintaritzek zerrenda bat argitaratu *ahal izango dutela* Eraginaren Ebaluazioa egin behar ez duten datu tratamenduekin, tratamenduen arduradunei laguntzeko hobeto identifikatzen zein tratamenduk behar ez duten halako bat. Datuak Babesteko Europako Lantaldeari (Europako Lantaldea) jakinarazi behar zaio zerrenda.

Aldez aurretik Eraginaren Ebaluazioa egin behar ez duten datu tratamenduen zerrenda Lantaldeari jakinarazi behar bazaio ere, helburua da informatzea, ez besterik. Hala ere, gerta daiteke behin edo behin Lantaldeak esku hartzeren bat burutzea edo erabakiren bat hartzea zerrenda dela eta.

Eraginaren Ebaluazioa kostu handiko prozesua da, eta beharrezkoa da baliabideak aurrezteko printzipioa erabiltzea. Beraz, gerta daiteke hasiera batean egindako azterketa kualitatiboaren emaitza izatea ez dela beharrezkoa eraginaren ebaluaziorik egitea. Halakoetan, erabakia ondo arrazoituta egon beharko da.

# LISTA ORIENTATIVA DE TIPOS DE TRATAMIENTOS QUE NO REQUIEREN UNA EVALUACIÓN DE IMPACTO RELATIVA A LA PROTECCIÓN DE DATOS SEGÚN EL ARTÍCULO 35.5 RGPD.

## INTRODUCCIÓN

El Reglamento UE 2016/679, General de Protección de Datos del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril (en adelante RGPD) dedica la Sección 3 de su capítulo IV (*"Responsable del tratamiento y encargado del tratamiento"*) a la Evaluación de Impacto relativa a la protección de datos (en adelante EIPD).

Para facilitar a los responsables de los tratamientos la identificación de aquellos tratamientos que no requieren una EIPD, el RGPD dispone que las autoridades de control *podrán* publicar una lista con los tratamientos que no requieran de la elaboración de una EIPD. Dicha lista deberá ser comunicada al Comité Europeo de Protección de Datos (CEPD).

La comunicación al Comité de la lista que contenga la relación de tratamientos respecto de los que no se exige la realización de una EIPD previa lo es a efectos meramente informativos, lo que no impide que, llegado el caso, el Comité pudiera adoptar alguna intervención o decisión al respecto.

La EIPD es un proceso costoso y es necesario aplicar un principio de economía de medios. Por lo tanto, un primer análisis cualitativo puede concluir que no es necesario realizar dicha EIPD. En ese caso, dicha decisión ha de estar suficientemente fundamentada.

c/ Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3º - 01008 Vitoria – Gasteiz - Tel. 945 016 230 - Fax. 945 016 231 avpd@avpd.eus - www.avpd.eus

Bestalde, ez dute eraginaren ebaluaziorik egin beharko datu tratamenduak ez badira datu pertsonalen gainekoak. Hala ere, herritarren eskubideak babesteko asmoz, badaezpada Erregelamendu Orokorrean jasotako datu pertsonalaren kontzeptua modu ahalik eta zabalean ulertuko da, hau da, hasierako abiapuntua izango da pentsatzea defektuz tratatuko direla datu pertsonalak; eta ez kontrakoa, hau da, aldez aurretik ziurtzat jotzea ez dela halako datu kategoriarik tratatuko.

Ondoko zerrendan daude adierazita zein tratamenduk ez duten egin behar eraginaren ebaluaziorik; baina, horrek ez du esan nahi Erregelamendu Orokorreko bestelako obligaziorik bete behar ez dutenik. Beraz, zerrenda honek ez du esan nahi tratamenduak salbuetsita daudenik datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak ezarritako betebeharretatik.

Zerrenda egiteko WP 248[1] dokumentua baliatu da, eta dokumentuak bezala, xedetzat du arduradunei laguntzea eraginaren ebaluaziorik behar ez duten tratamenduak zehazten:

Por supuesto, queda excluida de esta obligación cualquier tratamiento de datos en los que estos no sean de carácter personal; ahora bien, como medida de precaución en relación a preservar los derechos de los ciudadanos, se ha de considerar el concepto de “dato de carácter personal” establecido en el RGPD de una forma extensiva, es decir, se ha de considerar que se tratan de datos de carácter personal por defecto y no asumir, a priori, que no se pueda dar dicha categoría a los datos tratados.

En la siguiente lista se establecen los tratamientos exentos de realizar una EIPD, sin perjuicio de otras obligaciones establecidas en el RGPD, por lo tanto, no es una lista de exención de las obligaciones que establece la normativa de protección de datos sobre los tratamientos de datos personales.

Esta lista se basa en el documento WP 248[2] y complementa su criterio con el objeto de ayudar a los responsables a determinar qué tratamientos no requieren de una EIPD.

[1] Jarraibideak, datu babesari buruzko eraginaren ebaluazioari buruz (DBEE) eta zehazteko ea tratamenduak “arrisku handia ote dakarren” 2016/679 Erregelamenduaren ondorioetarako.

[2] Directrices sobre la evaluación de impacto relativa a la protección de datos (EIPD) y para determinar si el tratamiento «entraña probablemente un alto riesgo» a efectos del Reglamento (UE) 2016/679

| ERREGELAMENDU OROKORRAREN 35.5 ARTIKULUAK AGINTZEN DUEN DATU-BABESAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EGIN BEHAR **EZ** DUTEN TRATAMENDU MOTEN GAINEKO GUTXI GORABEHERAKO ZERRENDA. | LISTA ORIENTATIVA DE TIPOS DE TRATAMIENTOS QUE **NO** REQUIEREN UNA EVALUACIÓN DE IMPACTO RELATIVA A LA PROTECCIÓN DE DATOS SEGÚN EL ARTÍCULO 35.5 RGPD |
|---|---|

1. Kontrol agintaritzek, eta bereziki AEPDk aldez aurretik jaulkitako zirkularren edo erabakien bidez ezarritako edo baimendutako jarraibidea zorrotz betez egiten diren tratamenduak; baina, baldin eta tratamendua ez bada aldatu baimendu zutenetik.
2. Europako Batzordeak edo kontrol agintaritzek, bereziki AEPDk onartutako jokabide-kodeetako jarraibideak zorrotz betez egiten diren tratamenduak; baina, baldin eta datu babesari buruzko eraginaren ebaluazio (DBEE) osoa egin bada jokabide-kodea baliozkotzeko eta baldin eta tratamendua ezarri bada DBEEn finkatutako neurriak eta zuhurtziak jasoz.
3. Lege-eginbeharra betetzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko beharrezkoak diren tratamenduak; baina, baldin eta lege-mandatu berean ez bada datu babesari buruzko eraginaren ebaluazioa egiteko agintzen, eta baldin jada egin bada eraginaren ebaluazio osoa bat.
4. Norberaren kontura ari diren langile autonomoek, batez ere medikuek, osasunaren arloko profesionalek edo abokatuek lan profesionala egin ahal izateko egiten dituzten tratamenduak. Nahiz eta gerta daitekeen datu babesari buruzko eraginaren ebaluazioa (DBEE) egiteko eskatzea; baina, baldin eta bakoitzak egiten duen tratamenduak nabarmen betetzen baditu datu babesari buruzko eraginaren ebaluazioa (DBEE) behar duten tratamendu motei buruzko AEPDk argitaratutako zerrendak ezarritako irizpide bi ala gehiago.

1. Tratamientos que se realizan estrictamente bajo las directrices establecidas o autorizadas con anterioridad mediante circulares o decisiones emitidas por las Autoridades de Control, en particular la AEPD, siempre y cuando el tratamiento no se haya modificado desde que fue autorizado.
2. Tratamientos que se realizan estrictamente bajo las directrices de códigos de conducta aprobados por la Comisión Europea o las Autoridades de Control, en particular la AEPD, siempre y cuando una EIPD completa haya sido realizada para la validación del código de conducta y el tratamiento se implementa incluyendo las medidas y salvaguardas definidas en la EIPD.
3. Tratamientos que sean necesarios para el cumplimiento de una obligación legal, cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable, siempre que en el mismo mandato legal no se obligue a realizar una EIPD, y siempre y cuando ya se haya realizado una EIPD completa.
4. Tratamientos realizados en el ejercicio de su labor profesional por trabajadores autónomos que ejerzan de forma individual, en particular médicos, profesionales de la salud o abogados, sin perjuicio de que pueda requerirse cuando el tratamiento que lleven a cabo cumpla, de forma significativa, con dos o más criterios establecidos en la lista de tipos de tratamientos de datos que requieren evaluación de impacto relativa a protección de datos publicada por la AEPD.

5. Legeak aginduta egin behar diren tratamenduak, enpresa txiki eta ertainen (ETE) barne kudeaketarekin lotuta egin behar direnak: kontabilitatea, giza baliabideak eta nominak, gizarte segurantza eta laneko osasuna kudeatzeko, baina sekula ez bezeroen datuei buruzkoak.
6. Jabeen erkidegoek eta azpierkidegoek egiten dituzten tratamenduak, Jabetza horizontalari buruzko 49/1960 Legearen 2 (a, b eta d) artikuluan jasotako definizioa kontuan hartuta.
7. Elkargo profesionalek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek egiten dituzten tratamenduak, bazkideen edo dohaintza-emaileen datu pertsonalak kudeatu eta elkargo eta elkarteen lana burutu ahal izateko; baina, baldin eta tratamenduan ez badute erabiltzen datu sentsiblerik, adibidez, Erregelamendu Orokorraren 9.1 artikuluan zerrendatuta daudenak, eta 9.2 (d) artikulua ez denean ezargarria.

5. Tratamientos obligatorios por ley y realizados con relación a la gestión interna del personal de las PYMES con finalidad de contabilidad, gestión de recursos humanos y nóminas, seguridad social y salud laboral, pero nunca relativos a los datos de los clientes.
6. Tratamientos realizados por comunidades y subcomunidades de propietarios tal como se definen en el artículo 2 (a, b y d) de la Ley 49/1960 de Propiedad Horizontal.
7. Tratamientos realizados por colegios profesionales y asociaciones sin ánimo de lucro para la gestión de los datos personales de sus propios asociados y donantes, y en el ejercicio de su labor, siempre que no incluyan en el tratamiento de datos sensibles tales como los que se establecen en el artículo 9.1 del RGPD y no sea de aplicación el artículo 9.2(d) de dicho Reglamento.